BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

5044

AGINDUA, 2013ko urriaren 18koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Larrialdiak Fundazioaren eratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Larrialdiak Fundazioaren eratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2013ko otsailaren 13an eman zitzaion sarrera Herri Administrazio eta Justizia Sailean Larrialdiak Fundazioaren eratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedienteari. Larrialdiak Fundazioa honako enpresa hauek sortu dute: «Europa Ehorzketak, S.L.», «Araba Anbulantziak, S.L., Sociedad Unipersonal», «Larrialdiak, S.L., Sociedad Unipersonal», «Sociedad Cooperativa Larrialdiak, S. Coop.» eta «LRK Emergentziak, Koop.E.» Eskariari espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion.

Bigarrena.– Fundazioaren helburuak zilegiak eta interes orokorrekoak direla egiaztatzeko bildu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoak fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman du 2013ko urriaren 18an.

Hirugarrena.– Honako hauek dira fundazioaren helburuak, estatutuen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Larrialdiak Fundazioaren xedea interes orokorreko helburuak lortzea da, besteak beste, honako hauek: gizarte-laguntza eta gizarteratzea, heziketa, zientzia, osasuna, garapen-lankidetza, boluntarioen sustapena, ekintza soziala sustatzea, arazo fisikoak, sozialak eta kulturalengatik bazterketa jasateko arriskua duten pertsonei laguntza ematea eta laguntza hori sustatzea, eta gizarte- eta osasun-arloan zientzia-ikerketa eta garapen teknologikoa. sustatzea.

Gizarte-arloan, adingabeei, adinduei, ezinduei, eta minusbaliatuei laguntza ematea, okupazio maila guztietan: denbora librea, aisialdia, garraioa eta tutoretza fisikoa zein legala.

Heziketa-arloan, gizarte- eta osasun-arloan ikerketa eta garapena sustatzea, hezi eta zabaltzea, fundazioaren helburuen alor guztietan ikerketa-proiektuak sustatuz eta gauzatuz.

Istripuei edo pertsonen zein ondasunen segurtasuna arriskuan jar dezakeen edozein egoerari aurre hartzen lagundu dezaketen jarduerak sustatzea, horien jatorria edo zioak direnak direla. Kirol-, gizarte-, arte- edota musika-ospakizunak direla-eta jende-pilaketak gertatzen diren ekintzetan era guztietako jarduera aurre-hartzekoak sustatzea; baita solas guneetan –hondartzak, igerilekuak, edota ekintza herrikoiak antolatzen direnean– jarduera aurre-hartzekoak sustatzea ere.

Kirol-, segurtasun-, bide- eta lan-jarduerak sorburu dituzten arriskuen inguruan, babes zibileko, osasun-laguntzako, erreskateko, prebentzioko eta heziketa-ekintzak sustatu eta horietan parte hartzea.

Laugarrena.– Estatutuetako 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera, fundazioaren egoitza Lezon dago (Urune kalea, 35 - Lezo - Gipuzkoa), eta fundazioak, gehienbat, Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ditu bere jarduerak. Batzuetan, baita estatu edo nazioarteko mailan ere.

Bosgarrena.– Hasierako diru-hornidura 140.713 eurokoa da. Kopuru hori ordaindu dela agiri bidez jasota geratu da erregistro-inskripzioko espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak 37.1.c) artikuluan.

Seigarrena.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetan xedatutakoaren arabera.

Zazpigarrena.– Patronatuko kideak, hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran ezartzen denez, hauek izango dira:

– Lehendakaria: José Joaquín Oroz Saizar jauna.

– Lehendakariordea: Iosu Gotzon Martín Azpeitia jauna.

– Idazkaria: Juan Carlos Quel López jauna.

– Diruzaina: Isabel Patricia Zuaznabar Arruti andrea.

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko bat erabiliz.

ZUZENBIDE-OINARRIAK:

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuan; eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoan.

Bigarrena.– Hartarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espedientea. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datuak eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa. Aplikatzekoak diren legeetan eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat etorrita eratu da fundazioa.

Ikusirik aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplikatu beharreko gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lezoko (Gipuzkoa) Larrialdiak Fundazioaren eratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea –egun honetan eta F-359 erregistro-zenbakiarekin–, baita haren patronatuaren hasierako osaera ere. Patronatua zazpigarren aurrekarian aipatzen diren kideek osatzen dute. Horiek guztiek espresuki onartu dituzte beren karguak, 2013ko otsailaren 4an Enrique García-Jalón de la Lama notarioaren aurrean sinatutako eskritura publikoan aurreikusitako baldintzetan (protokolo-zenbakia: 122). Eskritura publiko hori

aipatu notarioaren 2013ko uztailaren 19an sinatutako beste eskritura publiko baten bidez zuzendu zen (protokolo-zenbakia: 796).

Bigarrena.– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan sailkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 18a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.